

Arabako euskalgintza ekaitzaren barruan (1939-1975)

Jon Martinez Larrea

Historian lizentziatua da eta *Arabako gizarte-mugimenduak Trantsizioan (1976-1983)* izenburuko tesia egiten ari da EHU

Artikulu honen xedea Arabako euskalgintzaren bilakaera frankismoan azaltzea da. Lehenik eta behin, ulertu behar dugu euskalgintza kontzeptu zabala dela, eta artikulu honetan helduen euskalduntzean, ikastoletan eta kulturagintzan zentratuko gara. Testuingurua dramatikoa zen Araban, mendeetako gainbeheraz gainera, frankismoaren errepresioaren erruz hizkuntza hilzorian zegoen. Egoera kezkagarri horretan, hainbat pertsona hasi ziren lanean euskararen berreskurapenaren aldeko hainbat arlotan, lehenik ilunpean eta denbora joan ahala argitasunean. Horrela, 1970eko hamarkadan jauzi bat eman zuen, helduen euskalduntzea eta ikastolak formalizatu ziren, eta kulturagintza zabaldu zen. Arabako euskalgintzak berezitasun batzuk eduki arren, Euskal Herriko marko orokorraren barruan koka dezakegu, garapena berbera izan zen eta gure herrialdean ere nabaritu ziren euskal munduan gertatutako tentsioak, adibide ezagunena euskararen batasunaren inguruko eztabaida izan zen. Oro har, ertz ugariko borroka izan zen, bertan politika edo erlijioa nahastu zirela eta. Oro har, esan dezakegu orduan hasi zela Araban euskara biziberritzeko bidea.

GAKO-HITZAK: Araba · Euskara · Euskalgintza · Frankismoa · Ikastolak

Basque cultural movement in Alava during the storm (1939-1975)

The aim of this article is to explain the evolution of Basque cultural movement in Alava in the Francoism. First of all, we need to understand that the movement was very broad, and in this article we will focus on adult's teaching, basque schools and culture. The context in Alava was dramatic, in addition to the decline of centuries, the language was in risk due to the repression of Francoism. In this worrying situation, many people began to work to recovery the Basque language. Thus, it took a leap in the 1970s with the formalization of adult education and basque schools, and the spread of culture. Although the movement in Alava has some peculiarities, it was inside on framework of the Basque Country, the development was the same and tensions were also noticed in our province, like the debate of the unity of the language. In general, it was a multi-edged struggle in which politics or religion were mixed..

KEY WORDS: Alava · Basque language · Basque cultural movement · Francoism · Basque schools.

1. Sarrera

Arabako euskararen egoera tamalgarriari buelta emateko, frankismoaren hasieratik ahaleginak egin ziren. Saiakera horien aitzindaria, zalantzarik gabe, Andoni Urrestarazu *Umandi* izan zen. Modu klandestinoan, 1942an, bere Gasteizko etxean helduak euskalduntzen hasi zen; bere militantzia politikoa zela eta, 1951n erbesteko bidea hartu behar izan zuen, baina hazia ereinda zegoen. Izan ere, helduen irakaskuntzak aurrera jarraitu zuen, eta 1963an *Umandiren* ikasle ohiek Olabide Ikastola jarri zuten martxan. Bestalde, azpimarragarria da Manuel Iradier Txango Elkartearen lana euskal kulturaren zabalkundearen. Arabako lehenengo ikastola, aldiz, Laudioko Galmaka auzoan jaio zen 1960an, hamar urte geroago sortuko zen Laudio Ikastolaren aitzindaria.

1970eko hamarkadan Arabako euskalgintzak jauzi kualitatibo bat eman zuen, klandestinitatetik ateratzearekin batera, helduen euskalduntzea eta ikastolak formalizatu ziren. Era berean, ikastolak eta gau-eskolak herrialdean zehar zabaldu ziren. Euskal kulturgintzan ere bultzada nabaritu zen arlo askotan, batez ere, musikan. Garai horretan ere hainbat kontraesan eta barneko borrokak azaleratu ziren.

Ikerketa hau aurrera eramateko hainbat iturri hartu dira aintzat: gaiari buruzko bibliografia, argitalpenak, eta, artxibo-lanari dagokionez, batez ere, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiaren funtsak kontsultatu ditugu. Horiez gain, ahozko historia erabili dugu, elkarrizketak egin ditugu bizitza-historia metodoa baliatuz, eta ahotsak. eus web-orrian zein bestelako argitalpenetan agertutako elkarrizketak kontsultatu ditugu. Aintzane Rincónek eta Arantza Anzizarrek defendatzen dute:

Ahozko iturrira jotzea, ez bakarrik gertatu zena ezagutzeko, baita ere jakiteko zergatik gertatu zen, nola bizi izan zuten... Eta orduan gertatutakoek protagonisten oroimenean utzitako aztarna emozionaletara hurbiltzeko ere bai. Jaso ditugun testigantzek, bizi izandako gertaera eta emozioek, aukera ematen digute oroipen partikularrak ezagutzeko. Oroipen horiek elementu subjektiboz beteta daude eta elementu horiek argituko digute orduan gertatutako guztiaren zentzua (Rincón, Anzizar, 2014: 74).

Esaterako, lagundu digu ulertzeko zergatik hainbat pertsonak euskara ikasi eta hortik aurrera euskal kulturaren berreskurapenean lanean jarraitu zuten.

Beste alde batetik, nabaria da historiografiak orain arte ez duela apenas euskalgintza aintzat hartu, are gutxiago Arabako kasuan. Hori dela eta, bestelako diziplinetan egindako lanak erabili ditugu, besteak beste, soziolinguistika, soziologia, filologia, kazetaritza...

Azkenik, esan behar dugu euskalgintza definitzea ez dela lan erraza, definizio bakarretariko Mikel Zalbiderena da, eta bi euskalgintza bereizten ditu, *berariazkoa* eta *bide batezkoa*. Lehenengoa honela definitzen du:

Soziokulturalki autorregulatzeko eta belaunez belaun transmititzeko indar faltaz euskal etnokultura (hizkuntza barne) gainbehera datorrela ikusirik, erabat galtzeko arriskua uste izanik eta halakorik nahi ez delarik, etnokultura horri bizirik eusteko giza

artean deliberatuki egindako saio multzoa [...] Hots, euskal kulturaren on beharrez hainbat eragilek, perspektiba soziokulturaletik eta elkar-lanean, eraturako ekimen sorta...

Bide batezko euskalgintzari dagokionez, emaitza euskal kultura laguntzea bada ere, ez dago «galera hori eragozteko berariazko asmorik» (Zalbide, 2007: 879-881). Hortaz, Zalbideri jarraituz, uste dugu frankismoan *berariazko* euskalgintza zela nagusi Araban eta Euskal Herri osoan. Zehatzagoak izateko, euskalgintzaren barnean kokatzen dugu arlo ezberdinetan euskal kultura biziberritzearen alde jarduten duen eragile oro, eta artikulu honetan aztertuko ditugu helduen euskalduntzea, ikastolak eta kulturagintza.

2. Testuingurua

2.1. Aurrekariak

XIX. mendearen bukaeran Arabako intelektual batzuek, tartean, Fermin Herranek, Ramon Becerro de Bengoak edo Mateo Morazak, beren kezka adierazi zuten euskararen gainbeheraren inguruan. Esate baterako, Fermin Herran gesaltzarrak goraiatu zuen «la antigüedad de la lengua vascongada, deducida de su perfección», hori zela eta, academia baten beharra azpimarratu zuen «porque este monumento no se pierda para siempre, y aconsejar a los que en su conservación están interesados, unan sus esfuerzos a fin de que pueda transmitirse entero e incorruptible a las futuras generaciones» (Herran, 1879: 249).

Alabaina, XX. mendearen hasierara arte ez ziren gauzatu lehenengo ekimenak euskal kultura biziberritzeko, 1907tik aurrera euskarazko klaseak hasi ziren, hain zuzen ere. Bide batez, Eusko Ikaskuntzaren babesarekin, Baraibar Elkarteak sortu zen 1928an, haien helburuen artean honako hauek zeuden: euskaren arrastoak mantentzea, erdaldunak euskalduntzea eta euskaltzaletasuna suspertzeko jaialdiak antolatzea (Apraiz, 1976: 70).

Garai berean, Gasteizko apaiztegian ere euskararen aldeko urratsak egin ziren, besteak beste, Manuel Lekuonak gidatutako *Kardaberaz* academia eta aldizkaria, edo Jose Miguel Barandiaranek zuzendutako *Gymnasium* aldizkaria. Bere eragina Arabako gizartean txikia izanda ere, baliagarria izan zen euskararen aldeko jarrera aktiboa sustatzeko apaiz gazteen artean, eta funtsezkoa aipatutako Baraibar Elkartearen sorreran.

Bestalde, EAJk bultzatutako Euskal Eskolak 1932an ireki zituen ateak Gasteizen. Euskal Eskolaren sorrera lehenengo ikastolen mugimendurekin lotuta egon arren, ikasgai guztiak ez ziren euskaraz. Eredu euskaldunean ikastolak zabaldu ziren, eta bertan euskaraz ematen ziren eskola guztiak; eremu erdaldunean, aldiz, Euskal Eskolaren ereduak garatu zen, euskara soilik ikasgai bat zen, eta gainontzeko ikasgaiak gaztelaniaz irakasten ziren. Gasteizko Euskal Eskolaz gain, Laudion, Agurainen eta Amurrioren ere sortu ziren (Elustondo, 2014: 17). Tamalez, Arabako euskalgintzaren lehenengo saiakerak supituki bukatu ziren gerraren hasierarekin batera.

2.2. Euskararen aurkako errepresioa

Arabako euskararen eta euskal kulturaren egoera nahiko kaskarra zen frankismoaren aurretik¹, baina errepresio frankistak hizkuntzaren atzerapena azkartu zuen. Agustí Colominesek azpimarratzen duen bezala: «Uno de los principales objetivos del franquismo fue la españolización castellanizante de los pueblos hispánicos con lengua propia» (Colomines, 2005: 210).

Dabid Anauten ustez, euskararen atzerapenaren arrazoiak hizkuntza-ordezkapenaren prozesuarekin lotuta daude, eta prozesu horretan hainbat faktore hartu behar dira kontuan:

Sozialki nagusia den hizkuntzaren prestigioa, erdaldunen ehunekoa handitzea eta euskaldunen tipologia aldatzea, gizartearen berrikuntza erdararen eskutik etortzea... Horien ondoan, hizkuntza-politika jakin baten ondorioz, euskarari kalea kentzeko saiakera kontziente eta horren ondoriozko jazarpena (Anaut, 2013: 403).

Egia esan, ez dugu apenas daturik Arabako euskaldunei buruz, ikerketa bakarra Pedro de Yrizarrek egin zuen 1970eko hamarkadaren hasieran. Bere lana eremu euskaldunera mugatzen zenez gero, ez dugu Gasteizko daturik. Hiriburua erdalduna bazen ere, Emilio Lopez Adan *Beltzak* gogoratzen duenez: «Euskaldunak baziren, izan, gure familia arabarretan, zaharrak, edo Deba bailarako herrietatik etorriak, gazteagoak; kale hizkuntza erdara zen eta gutxi entzuten zen. Erdaraz, “vasco” hitza erabiltzen zen “euskalduna”, hau da, euskaraz mintzo dena, adierazteko» (Anaut, 2013: 450).

Herrialdeari dagokionez, euskara atzerapen larria bizitzen ari zen, salbuespen bakarra Aramaioko bailara, bertan euskara osasuntsu mantendu zen, hizkuntza hegemonikoa zela eta. Ibarran, udalerriko hiriburuan, 870 biztanleetatik 600 euskal hiztunak ziren, eta gainontzeko herrietan bizilagun guztiak. Hala ere, atzerapena ere hasi zen nabaritzen inguru horretan, 1972an Patxi Uribarrenek adierazi zuenez: «17´urtetik berakoen artean ez dogu ia euskerarik entzuten, eta 17´urtetik gorakoak gero eta gitxiago egiten dabe [...] Atzaraka goaz ba» (Uribarren, 1972: 165).

Egoera dramatikoagoa zen Aramaiotik kanpo, eremu euskaldunaren barruan: Legution, hala nola, 920 biztanleetatik 150 besterik ez ziren euskal hiztunak; Laudion 200 inguru geratzen ziren, baina benetako gutxiengoa ziren 15.587 biztanleen artean. Inguruko herri txikietan ere euskararen atzerapena ia geldiezina zirudien (Yrizar, 1973). Bestalde, industrializazio-prozesuak ez zuen lagundu, biztanle berrien artean gehiengoa erdalduna baitzen.

Ia 40 urteko ibilbide honetan Arabako gizarteak erabat aldatu zen, urte gutxitan industrializazioari esker populazioa biderkatu zela eta. Gasteizko makrozefalia indartu, eta herrialdeko landa-eremua krisi demografiko batean murgildu zen.

1. Aketza Merinok berriki ikertu du euskararen galera Aiaraldean eta azpimarratzen du audio izan zela eskualdeko azken herri euskalduna, Baranbiorekin batera, hori zela eta, XX. mendearen hasieratik hizkuntzaren galerak atzeraezina zirudien eskualde osoan (Merino, 2018). Odon Apraizek, bere aldetik, laburtu zuen euskararen gainbehera herrialdean, bere ustez, prozesua azkartu zen XVIII. mendean eta, horren ondorioz, XX. mendearen erdialdean: «El problema del vascoence en Alava se nos presenta con caracteres de angustiosa agonía» (Apraiz, 1976: 75).

Gasteiz, 1950 eta 1975 urteen artean, 52.445 biztanletik 173.137ra pasatu zen. Hazkundera Aiaraldean ere nabaritu zen, Amurrión eta, batez ere, Laudion, 1940an 2.991 biztanle zituen eta 1977an, berriz, 20.138. Dena dela, ikusiko dugun bezala, Arabako euskalgintza, batez ere, eremu urbanoetan garatu zen.

Faktore horiez gain, beldurrak eta irakaskuntzaren debekuak galarazi zuten euskararen transmisioa, eta hori kolpe gogorra izan zen atzerapenean zegoen hizkuntza batentzat. Eskolan euskara guztiz baztertua izateaz gain, jazarria ere izan zen. Irakaskuntza guztia gaztelaniaz emateaz gainera, kasu askotan ikasleen artean euskaraz hitz egitea zigortua zegoen. Esate baterako, Legutioko Maria Jesus Lopez de Bergarak ez zuen zigorrik jaso, baina bere nebak bai: «Mutilen maistrua zan oso, oso espainola, ta euskaldunen kontrarioa [...] eukien ohitura lehengusu artien ta euskeraz, urten, urten euskera [...] ta plisti-plasta, baina makilegaz buruen ondorrak atara arte [...] orduen ziren oso denbora gogorrak»². Herri bereko Imanol Garaigordobilek ere gogoratzen du egurra eman ziotela euskaraz hitz egiteagatik³.

Eskolaz kanpo ere aurki dezakegu euskararen jazarpenaren testigantza ugari; izan ere, erregimenaren asmoa euskara kaletik ezabatzea zen. Adibidez, Laudioko herritar batek gogoratzen zuen Guardia Zibilaren aurrean beldurra zegoela euskaraz hitz egiteko: «Ya sabían cuándo y cómo había que... y si había una pareja de la guardia civil en el bar o donde estaban, estate tranquilo que no hablaban» (AA, 2007: Tomo II, 257). Legutioko kaleetatik ere desagertu zen euskara, Maria Jesus Lopez de Bergarak orduko giroa deskribatzen du: «Gerra ostean ta... Ba hemen eon zan oso kastigauta, herria, ezin zan euskerarik egin»⁴.

Euskaldun gehienak zaharrak ziren eta transmisioa galtzen ari zen. Arestian esan dugun bezala, beldurra transmisiorik ezaren gako bat izan zen; adibidez, Laudioko herritar batek gogoratzen du bere gurasoak euskaldunak izanik ere, beldurra zela eta, ez ziotela apenas erakutsi seme-alabei:

¡Ay majo, lo que pasamos! ¡Lo que pasamos! Hasta los guardias y todo. Mi ama y mi aita, tú puedes creerme que nos querían hablar en euskera, con miedo, con miedo... ¡ni en el caserío! Algunas palabras o así, sí decían. Si hablábamos, pero poco porque buena teníamos con la maestra (AA, 2007: Tomo II, 254).

3. Helduen euskalduntzea

3.1. Umandiren hazia

Maiz errepikatzen da Joxean Artze poetaren esaldia: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik». Arrazoia bazuen ere, Araban euskal hiztun gutxi geratzen zirenez gero, euskararen arazoa ez zen hainbeste euskaldunen utzikeria, hiztun berrien beharra baizik. Hori zela eta,

2. Elkarrizketa Maria Jesus Lopez de Bergarari, Ahotsak, 2010-04-19, <<https://ahotsak.eu/legutio/hizlariak/maria-jesus-lopez-de-bergara-berriozabal/>> (Kontsulta: 2021-01-27).

3. Elkarrizketa Imanol Garaigordobili, Ahotsak, 2010, <<https://ahotsak.eu/legutio/hizlariak/imanol-garaigordobil-berriozabal/>> (Kontsulta: 2021-01-27).

4. Elkarrizketa Maria Jesus Lopez de Bergarari, Ahotsak, 2010-04-19, <<https://ahotsak.eu/legutio/hizlariak/maria-jesus-lopez-de-bergara-berriozabal/>> (Kontsulta: 2021-01-27).

euskararen irakaskuntza beharrezkoa zen, hizkuntzaren berreskurapenaren bidea abiarazteko.

Gasteizen laster hasi ziren lehenengo ahaleginak, aitzindaria Andoni Urrestarazu *Umandi* izan zen. Apaiz eta idazle araiarra 1942an espetxetik atera bezain pronto helduei irakasten hasi zen, bere etxean bertan. Bere ikasleen artean zeuden, besteak beste, Gasteizko alkate izango zen Jose Angel Cuerda, edo euskara-irakasleak izango ziren Peli Presa eta Peli Martin. Klaseak isilpean ematen ziren, eta ez zuten testulibururik, makinaz idatzitako orri batzuk besterik ez.

1951n EAJk bultzatutako greba orokor batean parte hartzeagatik, erbesteko bidea hartu zuen, baina hazia ereinda zegoen. Orduan, ardua Peli Presaren esku geratu zen eta, denbora pasa ahala, irakaskuntza isilpetik ateratzea erabaki zuen. Bere laguntzaileak, Peli Martinek, idatzita utzi zuenez: «Creíamos que debían salir de la clandestinidad en que hasta entonces habían permanecido» (Elustondo, 2014: 24).

Lehenengo saiakera 1957an izan zen Ramiro Maeztu Institutuan. Horretarako ezinbestekoa izan zen Odon Apraiz euskaltzalearen laguntza, bertako irakaslea baitzen. Klaseak ofizialak izan ez arren, onartuta zeuden; eta deialdi publikoari 244 ikaslek erantzun zioten. Klaseez gainera, jarduera osagarriak antolatu zituzten, tartean, Koldo Mitxelena edo Jose Miguel Barandiaranen hitzaldiak.

Nolanahi ere, *Movimiento Nacional*-eko herrialdeko buruzagitzak esku hartu zuen 1962an. Mugimenduak klaseak kontrolatu nahi zituen, eta, batez ere, ikasleen izenak ezagutzea zuen helburu. Beldurra zela medio, ez zuen inork izena eman.

Etenaldi horren ostean klaseek aurrera jarraitu zuten, lehenik Jesus Langile ikastetxean, eta gero Arte eta Lanbide Eskolan. Presak, bere ibilbide osoan, 800 ikasle inguru izan zituen. *Beltzaren* ustez: «Zortziehun horiek baino jende asko gehiago izanen zen egoera normal batean; baina egoera ez zen normala, irakaskuntza ofizialean ez zen hauturik euskaraz edo euskara ikasteko, eta, gehiago dena, errepresioak bereak eta bost egiten zituen euskaratzearen grina kikiltzeko» (Anaut, 2014: 453).

Gontzal Fontanedak, Presaren ikaslea izandakoak, ondo gogoratzen ditu garai horiek: «Euskara ez zitzaien gustatzen agintariei, [...] batzutan polizia zetorren [...] baina arazo haundirik gabe, beti urduri, aber leku horretan kurtso osoa egiten dugun edo, baina, ba aldatu egin behar, aldatu» Gipuzkera ikasten zuten eta metodoari dagokionez: «Lehen ez zegoen nork-nori-nor eta holako gauzarik, adibidez, zegoen «oraciones objetivo-pronominales», hori da: nauzu, zaitugu»⁵.

3.2. Juan Bautista Gamiz Taldea

1966an, Rikardo Arregiren ideiaaren haritik, Euskaltzaindiak Alfabetatze Saila sortu zuen. Araban, halere, sailak eragin murriztua izan zuen. Lurrealde horretan koxka ez zen euskaldunak alfabetatzea, erdaldunak euskalduntzea baizik. Hortaz,

5. Elkarrizketa Gontzal Fontanedari, Gasteiz, 2015-03-17.

alfabetatze-lana Aramaiora mugatu zen, Patxi Uribarrenen esku geratu zen eta 400 ikasle inguru eduki zituen zortzi urtetan (Uribarren, 2010: 75).

Beste alde batetik, helduen euskalduntzeak aurrerapauso nabarmena eman zuen Arabako lurraldean. Erabakigarria izan zen 1967an Oñatiko apaizgai agustindarren talde baten lekualdaketa Gasteiza. Taldearen burua Eusebio Osa zen, eta gehienak euskaldunak ziren. Pako Izagirre haien artean zegoen eta gogoratzen duenez:

Hogeita hamarren bat gazte etorri ginen, Eusebio arduradun, eta hiru etxetan jarri ginen bizitzen. Fakultatean ari ginen ikasten, baina Tomas de Zumarraga Dohatsuaren kalean bizi ginen, eta kalean bizitzeak apaizgaiok Gasteizko giroarekin bat egitea ekarri zuen. [...] Euskarazko mezaren inguruan biltzen ginen, eta, gu bezala, Gasteizera lanera joandako familia euskaldunak eta haien seme-alabak [...] Irailean etorri eta Gabonak baino lehen euskarazko eskolak ematen ari ginen! Oso azkar gertatu zen dena! Rafa Etxegarai Club Judimendin hasi zen euskara erakusten. Felix Razkin, Manuel Iradier mendizale eta kultur taldean. Ni neu, Club Aquinas izeneko batean... Eusebio Osa, Agurainen; Jose Maria Allur, Legution eta Ubidean; Kepa Mallea ere hor nonbait; Pruden Sudupe...⁶

Aipatutako euskarazko mezak Brigiden komentuan egiten ziren eta Gasteizko euskaldunen topagune bihurtu ziren, hala nola Mikel Hernandez Abaituak oroitzen du: «Haurra nintzelarik Gasteizko euskaldunak ez ziren izango berrogei baino gehiago asko jota, asteburuetan euskarazko meza entzutera kapera txiki batera joaten zirenak eta besteren bat (euskaldun berriak gehienak)» (Hernández, 2010: 34)

Gorka Knörrek gogoratzen du orduko euskararen eremua mugatua izateaz aparte, oso sakabanatua zegoela. Hortaz, euskarazko mezatara joatea ez zen askorentzat fede kontua, «fede izan genezake, batzuk edo besteek, gehienbat joaten ginan euskaraz egiten zirelako»⁷.

1970eko hamarkadaren hasieran Oñatitik etorritako apaizgaiok eta Gasteizko euskaldun berriek «Juan Bautista Gamiz» taldea eratu zuten, euskara-irakasleen lehenengo koordinakundea izango zena. Bi taldeen elkartze horrek Arabako euskalduntze-prozesuari bultzada eman zion. Une horietan benetako hedapena gertatu zen, klaseak ugaritzeaz gain, Gasteiztik kanpo hainbat herritara zabaldu ziren, besteak beste, Audio, Amurrio, Baranbio, Murgia, Urbina edo Elosu.

Taldean, arestian aipatutako irakasleak ez ezik, honako hauek ere bazeuden: Ima Murgoitio, Jeni Prieto, Aingeru Ibisate, Sorne Fernandez edo Juanjo Uranga. Horretaz gain, Henrike Knörren inguruan eta Euskaltzaindiaren babesarekin antolatu zen beste talde bat; tartean, honako irakasleak zeuden: Maite Mendiburu, Imanol Leturiondo edo Kepa Mendia. Denborarekin bi taldeak batu egin ziren eta 1977an AEK sortu zuten, beste herrialdeetako taldeekin batera.

6. Pako Eizagirre: «Araba euskalduntzeko egin den ahaleginaren neurriaren berririk ez dute ondoko herrialdeetan», *Berria*, 2015-09-16, <<https://www.berria.eus/paperekoa/1951/032/001/2015-08-16/araba-euskalduntzeko-egin-den-ahaleginaren-neurriaren-berririk-ez-dute-ondoko-herrialdeetan.htm>> (Kontsulta: 2021-01-27).

7. Elkarrizketa Gorka Knörri, Bartzelona, 2015-07-17.

Irakasleen motibazio bakarra euskaltzaletasuna zen, Jose Mari Igartua irakasleak gogoratzen duenez, «Ez genuen ezer kobratu, eta gainera burutik pasa ere ez» (Amestoy, 2010: 17). Ikasleen artean, berriz, euskara ikastea ikusten zuten «Beharrezkoa, euskaldun izateko», eta beraien ustez, hizkuntzaren atzerapenaren zio nagusia zen «Opresio baten menpean gaudelako», ondorengo erantzuna, aldiz, «Interes guti izan dugulako» zen. Era berean, ikasleek batua arazorik gabe onartu zuten, hainbat arrazoi zirela medio: «Herriaren batasunerako beharrezkoa, euskerak iraun dezan eta zabal dadin, euskaldun berrientzat oso egokia»⁸.

Orobat, irakaskuntza formalizatu zen eta metodologiaren arloan aurrerapausoak egin zituzten, Gontzal Fontanedaren hitzetan:

Metodoa egin genuen, geure erakoa: *Hizketan* zuen izena. Aditza eratzea —nor-nori-nork eta beste—, neuk egin nuen; Eusebio Osak, testuak, langileak gora eta nagusiak behera; eta Maribel Elizondok jo zuen material hura makinaz. Aurretik, Umandiren gramatika, eta geroago, Patxi Altunaren *Euskerak, hire laguna!* izenekoa erabili genuen. Gogoratzen naiz ez genekiela zer zen «hire» hura, eta galdetu edo libururen batean begiratu behar izan genuela⁹.

Irakaskuntzarekin batera, euskal giroa zabaltzeko nahia agertu zen, esate baterako, Aguraingo kasuan Itziar Amestoyk azpimarratzen duen bezala: «Klaseetan irakatsitako gramatikak adina lan egin zuten inguruan sortutako ekintzek herriaren nortasuna berreskuratzeko» (Amestoy, 2010: 27).

Aurrerapenak aurrerapen, oztopoak ez ziren guztiz desagertu, adibidez, 1971n hainbat ikasle eta irakasle atxilotuak izan ziren Araotzen egindako barnetegi batean (Elustondo, 2018: 80). Modu berean, Agurainen Guardia Zibilak euskara-ikasle guztiak atxilotu zituen.

40 urte horietan, oztopoak oztopo, hainbat arabarrek euskara ikasteko hautua egin zuten; batzuek ez zuten bide osoa bete; beste batzuk, aitzitik, euskaraz bizitzera heldu ziren. Pausoa emateko orduan, akuilu izan ziren, euskal kontzientzia nazionalaren berpiztea edota euskararen egoera dramatikoari buelta emateko borondatea. Askorentzat euskara Arabako identitatearen zati bat zen.

Esate baterako, Gontzal Fontaneda, ikaskide baten bidez, Euskadiren existentzia ezagutu eta gero, jasotako heziketa nazional-katolikoa zalantzan jarri zuen: «Lehen ikasi dudana gezurra, eta aldaketa egin nuen hor, eta kurtso honetan, ia urrian euskaraz ikasten hasi nintzen»¹⁰. Gorka Knörren kasuan, Bartzelonan hartu zuen erabakia, Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren kontzertu batean: «Topatu nintzan beste errealitate batekin kantari batzuei esker»¹¹. Jaialdi ondoko solasean lotsatu egin zen Lourdes Iriondoren aurrean euskara ez zekielako, eta ikasteko hautua hartu zuen.

8. Irakasle Taldea: «Arabak euskera?», *Anaitasuna*, 210, 1971-04-30, <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/anaitasuna/html/210.html#2187> (Kontsulta: 2021-01-27).

9. Gontzal Fontaneda: «Carabancheleko kartzelan onartu genuen guk euskara batua», *Argia*, 2017-11-12, <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2574/gontzal-fontaneda-gerra-ondoan-euskaltzale/>> (Kontsulta: 2021-01-27).

10. Elkarrizketa Gontzal Fontanedari, Gasteiz, 2015-03-17.

11. Elkarrizketa Gorka Knörri, Bartzelona, 2015-07-17.

4. Ikastolak

Elbira Zipitriak sortutako etxe-eskolen eredia birformulatuz, 1960ko hamarkadaren hasieran ikastolen mugimendua jaio zen. Urte gutxitan, mugimendu abertzaleak sustatutako sareen bitartez, Euskal Herrian zehar zabaldu ziren: tokian tokiko errealitatera moldatuta, zailtasunak zailtasun, euskararen berreskurapenaren gako nagusi bihurtu ziren. Frankismoko Eskola Nazionalen aurrean, hizkuntzaz aparte, pedagogia berritzailea martxan jarri eta sexu-bereizketa alboratu zuten. Dabid Anauten aburuz: «Ikastolak ez ziren inolako erabaki planifikatu eta programatuaren emaitza izan, han eta hemen loratzen ari zen azpiko indar eta gogo komun baten ondorioa baizik» (Anaut, 2013: 576).

Iban Izaren ustez: «Euskarak bizi zuen jazarpenari eta galbideari erantzuteko, haurrei euskara eta euskaraz irakasteko sortu ziren ikastolak» (Iza, 2010: 36). Idoia Fernandezek, bere aldetik, ikastoletako gurasoen nahia laburtzen du:

Ikastola ez zen seme alaben eskola soila, hizkuntzaren gordetze eta berreskuratzeko gunea, taldea bezala Estatuaren erasoaren aurrean aritzeko tokia, talde identifikapena bultzatzen eta birsortzen zuen eremua, seme alabengandik «hurbilago» sentiarazten zizkien ekintza, eta oro har, egun bakoitzean ordu batzuek eskatzen zituen apostua baizik (Fernández, 1994: 266).

Nabarmentzekoa da gau-eskoletako irakasle gehienak gizonak ziren bitartean, ikastoletan, berriz, emakumeak ziren. Aintzane Rinconek eta Arantza Anzizarrek defendatzen dute «andereñoaren irudiaren inguruan identitate femenino berri bat ere eraiki zela». Horretarako, frankismoak sustatutako feminitate-eredua baliatu zuten. Eredu hori amatasunean, zaintzan eta sakrifizioan oinarrituta zegoen, eta lortu zuten eraldatzea «eskola alternatibo, eta garaian iraultzaile bat abian jarri ahal izateko», horrek «identitate femenino indartsu eta oposiziozko baten eraikuntza ahalbidetu zuen» (Rincón, Anzizar, 2014: 7-8).

4.1. Galmaka

Ez da oso ezaguna, baina Arabako lehenengo ikastola Laudioko Galmaka auzoan sortu zen 1960an. Jose Maria Erraztik, JEZ enpresako jabeak, bere lantegiaren ondoan zenbait eraikin egin zituen; besteak beste, langileen etxeak, eliza eta aipatutako ikastola. Gela bakarra eduki arren, 40 ikasle inguru izan zuen urte gorenetan. Lehenengo irakasleek, Agurtzane Alberdik eta Eustakio Eizmendik, material pedagogikoen urritasunari aurre egin behar zioten. Urtsa Errazti ikasleak gogoratzen duenez, «Errepublikara garaiko eta gerra aurreko liburuekin aritzen ginen».

Eskola legeztatzeko orduan klaseak gaztelaniaz ematen zirela argudiatu zuten¹², eta gaztelaniazko liburuak erakutsiz, gairitu zituzten Guardia Zibilaren ikuskaritzak. Bere ibilbidea Laudio Ikastolaren jaiotzarekin batera bukatu zen¹³.

12. Katixa Garate: «Laudio Ikastolak hartu du lekukoa aurtengoan», *Argia*, 2000-07-18, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1766/laudio-ikastolak-hartu-du-lekukoa-aurtengoan?botua=0&artikulua_id=3583> (Kontsulta: 2021-01-27).

13. «Galmakako ikastola, euskararen uhartea», *Zuin Laudio*, 2013ko martxoa.

4.2. Olabide

Hiru urte geroago, era klandestinoan, Olabide Ikastola sortu zen Gasteizen. Ikastola abian jartzeko nafar jatorriko Izaskun Arrue andereñoa izan zen aukeratua; berak oroitzen zuenez: «Guraso batzuk hasi ziren Gasteizen lanean. Ni ez nintzen hasi, esanez: “Orain ikastola irekiko dut”. Guraso haiek euskaraz ez zekiten. Gogo hori sortu zitzaien eta bila hasi ziren. Eta ni aurkitu ninduten. Guraso haiek izan ziren fundatzaile, haiek» (Elustondo, 2011: 583). Guraso gehienak abertzaleak ziren eta asko *Umandiren* ikasleak izandakoak; hala ere, gehiengoak erdalduna zen¹⁴.

Lehenengo kurtsoa, 1963an, Izaskun Arrueren etxean bertan egin zuten, 14 umerekin. Urtez urte ikasleen kopuruak gora egin zuen, eta gurasoen artean ikastola handitzeko nahia zabaldu zen. Horretarako, gurasoek hainbat bilera egin zuten Estibalizko monasterioan, Ixidor Baztarrika priore euskaltzainaren laguntzaz; bertan, ikastolaz gain, Arabako euskararen hedaduraz ere hausnartu zuten. Giro horretan, 1967ko eguberrian, Olentzerok Gasteizko kaleak zeharkatu zituen ikastolako umeekin batera. Horrela, isilpeko errealitatea argitara eraman zuten.

Gontzal Fontaneda eta Xabier Bareñoren atxiloketen ostean, Estibalizko bilerak bertan behera geratu ziren. Biak ETAko kideak ziren, eta, noizean behin, bilera horietan parte hartu zuten; hori zela eta, polizia bileren berri eduki zuen, eta hainbat pertsona, tartean, Baztarrika bera, polizia-etxetik pasatu ziren.

Ikastola sendotzeko ahaleginek, ostera, aurrera jarraitu zuten, eta, zentzu horretan, 1967an ikastola Estibaliz etorbideko txalet batera lekualdatu zen. Era berean, legezartzeko bidea hasi zen, horretarako, Arruek eskaera bat bidali zion Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzako zuzendariari, ikastolan euskara osagarri besterik ez zela argudiatuz: «En el indicado Centro de Enseñanza se practicará ésta en idioma castellano y siempre conforme a las normas, control e instrucciones de la inspección [...] y que como actividad complementaria se dará por la tarde, de 5 a 6, clase de vascuence» (Elustondo, 2014: 50). Trikimailuak behin-behineko baimena eskuratzeko balio izan zuen.

Hortik aurrera, ikastolaren lana klandestinitatetik atera zen, alabaina, zailtasunak ez ziren desagertu: hala ohiko ikuskapen zorrotzak, nola «Ikastola» kartela jartzeko debekua. Beste arazoetariko bat irakasle alfabetatuen gabezia zen, horretarako, ikastaroak egin zituzten Irakasle-eskolako ikasle euskaldunen artean. Gorka Knörr lan horretan ibili zen eta gogoratzen duenez: «Garai hartan gure tresnak oso eskasak ziren, baina [...] geneukan grina bat [...] gure lan egiteko nahia handia zen, horri esker jende askok eskuzabaltasun ikaragarria izan zuen, jende askok ipini zuen bere dirua ikastolak aurrera egiteko, jende askok musu-truk lanetik kanpo, etab»¹⁵.

14. Ez dugu lehenengo garaiaren datu zehatzik, baina 2004an egindako ikerketa batean, 36 eta 41 urte artean zeuden Olabideko ikasle ohien % 64ren lehenengo hizkuntza gaztelania zen, gainerakoak, % 23 euskara eta %13 biak (AA, 2005).

15. Elkarrizketa Gorka Knörr, Bartzelona, 2015-07-17.

1973an ikastola kooperatiba bihurtu zen¹⁶ eta hazkundearen ondorioz, irakas-kuntzarako propio egindako eraikuntza berri bat egin zuten Lasarten 1975ean; ordurako 702 ikasle eta 31 irakasle bazeuden.

4.3. Talkak

Ikastolen gatazka nagusia Estatuarekin izanda ere, 1970eko hamarkadatik aurrera barne-tentsioak areagotu ziren, ikastolen hazkuntzarekin batera. Gatazkaren sorburuak honako hauek izan ziren: euskara batua, erlijioa, politika eta eredu pedagogikoa. Gatazka horiek Euskal Herriko hainbat ikastolatan agertu ziren, eta Arabaren kasuan, ondo baino hobeto islatu ziren Olabide Ikastolan.

Lehenengo afera erlijioarekin lotuta zegoen; ikastolak hasieratik erlijiotasunarekiko harreman estua eduki zuen, esate baterako, ikastolako haurrek jaunartzea elkarrekin egiten zuten. Hala eta guztiz ere, Eusebio Osa idazkariak, apaiza izanda ere, erlijioa ikastoletatik kanpo egon behar zela defendatu zuen: «Ikastola ez da, berez, kredo erlijiosoa bat irakasteko tokia. Horretarako katekesia dago». Bere ustez, kultura beharrezkoa zen heziketarako, «baina ez fedea, fedea ez dezakegu derriorraren mailan ipin. Fedea derriorraren mailan ipintzean, honen izatea itotzen dugu» (Osa, 1972: 186-188).

Bere idazkiek eta ekintzek zurrumurru ugari eragin zituzten, Pako Suduperen esanetan: «Zuzendaritza-batzordekideen eta gurasoen artean barra-barra zabaldu zen Gasteizko Olabide Ikastolan marxismoa eta ateismoa sartu nahi zirela» (Sudupe, 2013: 69). Polemikaren ondorioz, Olabide Ikastolako Batzarrak Osa kanporatu zuen. Urte batzuk geroago auziaz hausnartu zuen: «Batzuentzat, aldaketa bakarra kontentidu mailan eman zitekeen bakarrik. Euskara, Euskal Herriko geografia eta historia, eta abar. Beste batzuek uste genuen, berriz, heziketa osoa zela azpi-azpitik planteatu behar zena»¹⁷.

Bigarren gatazka euskara batuaren inguruko eztabaida izan zen. Gehiengoak batua onartu zuen, Izaskun Arruek, berriz, ez zuen bat egin erabakiarekin eta ikastola utzi zuen. Berak oroitzen duenez, erabakia giro nahasian hartu zen: «Batzarra egin genuen, baina hura gerra baino okerrago izan zen. Ez zen bukatu batzarra! Denok garrasika, istiluka, ez zegoen elkarren berri jakiterik. Horrela alde egin genuen batzarretik» (Elustondo, 2014: 35). Armando Llanos ikastolako aitak gogoratzen duenez: «Traumatikoa izan zen, guraso asko kontra jarri zitzaizkiolako euskara batua zela eta. “Zer egin behar dugu hatxerekin?” galdetzen zuen Izaskunek, eta hatx hasperenduna ahoskatuko balu bezala egiten zuen» (Elustondo, 2014: 86-87).

4.4. Laudio

1971n guraso batzuen ekimenari esker, Laudio Ikastola jaio zen; Gentza Belaustegioitia bultzatzaileak gogoratzen duenez:

16. «Ikastola P. Raimundo de Olabide», Gasteiz, 1973, Sancho el Sabio Fundazioa, ATA 5459.

17. Eusebio Osa: «Ikastolaren lehen alditxo bat (I)», *Iraultza*, 1978-3-(15-30).

Estábamos muy preocupados por dar una formación euskaldún a nuestros hijos [...]. Rápidamente se formó un conjunto de familias que teníamos un deseo común: que nuestros hijos tuviesen una educación moderna basada en nuestras señas de identidad que había que recuperar. Formación que a nosotros nos habían negado (Egiguren, 1997: 18).

Hasiera oztopoz beteriko bidea izan zen; hala nola, orduko alkateak, Maria Josefa Ochoak, ez zuen gustuko ikastolaren sorrera eta, traba ugari ipintzeaz gain, banku baten kreditua eragotzi zuen. Egoera horretan, ikastola aurrera ateratzeko nahian, familien ekarpenez aparte, jarduera osagarriak egin behar zituzten, besteak beste: zozketak, kantaldiak edo txosnak jartzea. Halaber, ez zuten eraikin propio bat eta herriko hainbat lekutan eman zituzten klaseak, tartean, Galmaka Ikastolako gelan edo Galiziar Etxean.

Pablo Gorostiagak, lehenengo Batzarreko kideak, orduko giroa islatzen du:

Teníamos trabas políticas, legales, económicas, técnicas, policiales... de todo tipo. Pero además había que superar problemas internos porque la gente se desinflaba, tenía dudas sobre el futuro del proyecto, y había que animar y convencer a quienes se venían abajo. Fue un acto de fe porque la realidad demostraba que casi no había salida (Egiguren, 1997: 5).

4.5. Agurain

Agurainen, Jose Mari Rekarteren akuiluari esker, hainbat gurasok kooperatiba bat eratu zuten. Horren ondorioz, Lope de Larrea Ikastola jaio zen 1974an. Lehenik, hiru urteko umeentzat gela bat ireki zuten apaiz-etxean, Junkal Olaondo *andereño*arekin; hurrengo ikasturtean beste gela bat, eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra jarri zuten abian 1975-1976 kurtsoan.

Materialaren urritasuna eta ekonomia kaxkarra izan ziren lehenengo urteetako eguneroko ogia. Arazo horiei aurre egiteko, hainbat ekimen bultzatu zuten, besteak beste, zozketak egitea edo jaiegunetan tabernak irekitzea. Aurreiritzi eta zalantzei ere aurre egin behar izan zieten, Jaso Ruiz de Alegriak, ikastolako lehenengo zuzendariak, oroitzen duenez: «Jendeak bere buruari galdetzen zion ea bertan zer erakusten genien gure seme-alabei. Baina ikastola bat baino ez zen, hizkuntza berreskuratzeko osagarri garrantzitsuarekin» (Amestoy, 2010: 64).

4.6. Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzua eta Ikasbidea

Arabako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuaren sustraia dago Aramaioko Udalak egindako eskaeran. Aramaioko alkatea kezkatua zegoen bertako haurrek ez zutelako aukerarik beren ama-hizkuntzan ikasteko; izan ere, apaizak egindako saiakera bat Guardia Zibilak eragotzi zuen.

1973ko urtarrilean jaio zen Zerbitzua, Visitacion Oiartzabalen ardurapean. Nafarroako Foru Aldundiak ere 1967an Vianako Printzearen erakundearen barruan sortu zuen *Sección de Fomento del Vasconce*. Bi herrialde horietan Foru erakundeen mantentzeak ahalbidetu zuen arlo askotan politika propioak garatzea, tartean, euskararen inguruan.

Arabako Foru Aldundiak honela adierazi zuen bere asmoa:

No es de hoy el interés de esta Corporación, por conservar el euskera o idioma vasco en nuestra provincia, tratando de que superviva en aquellas zonas donde aún se habla y de que se aprenda y cultive por quienes a ello están dispuestos, dado que es la lengua vernácula que nuestros mayores nos legaron como preciada joya¹⁸.

Alabaina, ez zituen begi onez ikusten orduko ikastolak, Instituzioaren arabera: «Estos centros [...] al haber caído la mayor parte de las veces en manos de personas ajenas a una preocupación estrictamente educativa [...] no pueden considerarse, de ninguna manera, como medio adecuado para la educación en Euzkera de los niños»¹⁹.

Ordura arte, Arabako Foru Aldundiaren eta euskal kulturaren arteko harremana folklorikoa besterik ez zen izan; Euskara Zerbitzuaren jaiotzarekin jarrera aktiboa hartu zuen hizkuntzaren mantentze eta berreskurapenaren arloan. Lehenengo ekimena Aramaion eskolaurrea euskaraz ematea izan zen, gela horretan 31 ikasle hasi ziren, eta hurrengo urtean kopurua bikoiztu zen.

Bigarren kezka Gasteizen ikastola berri bat eratzea zen. 1970eko Hezkuntza Lege Orokorren zirrikituak baliatuta, 1973-74 ikasturtean 25 haurrekin hasi ziren bi gelatan, *La Encina* haurtzaindegiko lokaletan, eta hurrengo urterako 200 ikasle baino gehiago ziren. Gelak txikiak geratu ziren eta Foru Aldundiak eraikin bat erosi zuen Duranan, Ikasbidea Ikastola martxan jartzeko asmoz (Mangana, 2014).

Foru Aldundiaren erabakia, ostera, ez zen denen gustukoa, esate baterako, moja batek ahaldun nagusiari gutun bat bidali zion ekimena kritikatzeko. Bere ustez, euskarak espainiarrak banatzen zituen eta gaizki ikusi zuen «que se resucite y se fomente lo que desune», hortaz, ohartarazi zien agintariei «de esa injusticia tendrán que dar Uds. estrechísima cuenta cuando se presenten ante el tribunal de Dios»²⁰.

4.7. Umandi

Eusebio Osak sustatuko polemika ez zen baretu Olabiden, hortaz, guraso batzuek bere bide propioa abiaraztea erabaki zuten eta Umandi Ikastola sortu zuten 1974an. Banaketaren muina pedagogiaren inguruan planteatu zen, Gorka Knorren iritziz: «Lehia bat izan zan [...] batez ere, izan zan ikuspegi erlijiosoa, alde batetik, eta, ba bueno, politika, pedagogia moldeak, etab»²¹. Juanjo Uranga, Umandiko presidentearen arabera ikastolaren helburua zen «una educación en libertad y para la libertad», hortaz, eskolaren funtzionamendua demokratikoa zen, eta gurasoek horretan parte hartzen zuten²².

18. Arabako Foru Aldundia: «Creación del servicio del Euskera», 1973-01-30, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia (ALHA), DAI 16244, 3.

19. Arabako Foru Aldundia: «Notas sobre la educación en vascuence en la provincia de Alava», 1973-02-21, AHLA, DAI 16244,9.

20. «Protesta de una religiosa», 1973, ALHA, DAI 16244,11.

21. Elkarrizketa Gorka Knörri, Bartzelona, 2015-07-17.

22. *El Correo*, 1976-09-17.

Ondorengo urteetan Arabako ikastolen mugimenduak aurrerapauso itzela eman zuen, Gasteizen hainbat ikastola sortu ziren eta herrialdean zehar zabaltzen joan ziren, testuinguru horretan 1977an Arabako Ikastolen Elkarteak jaio zen.

5. Kulturgintza

5.1. Manuel Iradier Txango Elkarteak

Hezkuntzaz gain, 1960ko hamarkadatik aurrera, oztopoak oztopo, euskal kulturaren aldeko mugimendu plurala sortu zen Euskal Herri osoan. Dabid Anauten ustez: «Loratu zen mugimendua herri —eta gizarte— mugimendua izan zen, botere guneetatik kanpo zeuden herritarrek eta taldeek bultzatua» (Anaut, 2013: 539). Ion Andoni del Amoren aburuz, «los rastros del euskera y la cultura vasca tradicional actúan como potentes polos atrayentes, porque son capaces de aperturas simbólicas contraculturales, y de hibridarse con nuevos fenómenos culturales e incluso propiciar mutaciones propias» (Amo, 2016: 28). Gerraosteko urte gogorrek igarota, euskal kultura esnatzen hasi zen.

Gasteizen Manuel Iradier Txango Elkarteak izan zen euskal kulturaren zabalpenaren eragile nagusia. Hasieran bere jarduerak mendizaletasunarekin lotuta bazeuden ere, denbora joan ahala, euskal kulturaren aldeko lana lehenengo lerrora pasatu zen.

Beraien jardueren artean, ezagunena izan zen Gorbeian ospatutako *Mairulegorretako Euskal Jaia*. Lehenengo edizioa 1963an egin zen eta hortik aurrera, debekuak debeku, handitzen joan zen, 1970eko hamarkadan euskaltzaleen ezinbesteko topagune bihurtu arte. Joseba Azkarragaren ustez: «Intentábamos entre nosotros utilizar el ámbito de la cultura o el ámbito del folklore también, para trasladar una imagen reivindicativa y, sobretudo de defensa de la identidad de nuestro pueblo»²³.

Agintarien oztopoak eta Guardia Zibilaren behaketa etengabea ez ziren gai izan jaialdiaren hazkundea geldiarazteko. Urtez urte parte-hartzaileen kopurua handitzen joan zen, eta euskal musika berriaren protagonista ezagunenak kobazulotik pasatu ziren, besteak beste, Mikel Laboa, Xabier Lete, Pantxoa eta Peio edo Urko. 1960ko hamarkadaren bukaeran zegoeneko 5.000 pertsona inguru biltzen ziren Gorbeiaiko maldetan. 1969an eta 1970ean jaialdia debekatua izan zen, baina 1971tik aurrera etengabe ospatu zen. Urte horietan kobazuloa txiki geratu zen; 1975ean, esate baterako, 15.000 pertsona bildu ziren.

Musikaz aparte, aldarrikapen politikarako ere leku ezin hobea zen, oihu klandestinoak eta ikurrinak agertzen ziren maiz. Horretaz gain, jaialdiaren aurretik kantarien letrak aurkeztu behar izaten zituzten, eta askatasuna edo herriari buruzko edozein aipamen debekatzen zuen Informazio eta Turismo Ministerioi ordezkaririk.

Mairulegorretako jaiak gainera, Manuel Iradier Elkarteak Oldarki Dantza Taldea sortu zuen, eta hainbat jarduera garatu zuen, hala nola Gasteizko Euskal Disko eta Liburu azoka edo Umeen Euskal Jaia.

²³. Mikel Ezkerro (2016): *Mairulegorreta. Iluntasunetik argitasunera*, Gasteiz, DVD.

Aiaraldean ere mendi-taldeak garrantzitsuak izan ziren euskal kulturaren berreskuratzeko lanean, hala Goikogane Laudion, nola Mendiko Lagunak Amurrion²⁴. Modu berean, herrialdeko gainontzeko kuadrilletara euskaltzaletasuna zabaldu zen, adibidez, Mendialdean 1975ean antolatu zen Euskal Jaialdia, Okongo Andra Mariren jaietan.

5.2. Euskal Kantagintza Berria Araban

Euskal kulturaren loraldiaren barruan, musikagintza izan zen Araban eragin handiena izan zuen diziplina. Lehenengo ahalegina Arabako herrialdean euskal musika sustatzeko izan zen Jose Mari Sedanok aurkeztutako *Euskal Jaia* irratsaioa, 1964tik aurrera emititzen zena Radio Vitorian.

Euskarazko musikaren arloan aitzindaria izan zen Araba Abesbatza, 1968an sortu zen Antxon Leteren zuzendaritzapean. Musikaren konposaketa Sabin Salaberriren esku geratu zen eta letra askoren egilea Eusebio Osa izan zen. Abesbatzari osagarri instrumental bat emateko asmoz, Amets taldea jaio zen (Velez de Mendizabal, 2008: 34).

Horrez gain, Ez Dok Amairu taldearen eragina Arabara heldu zen. Bere asmoa euskal tradizioa eta nazioarteko eragina batzea zen, eta horrela gai izan zen hiri handietara eta eremu erdaldunetara euskal kultura hedatzeko; esaterako, 1967an Gasteizen jo zuen, ETAre inguruko jendeak antolatutako jaialdi batean.

Josu Amezagaren ustez:

Kantaldiek komunikazio gune gisa bete zuten papera, azpimarragarria da gure iritziz. Alde batetik, kantagintza berriaren, eta bere proposamenaren —hots, euskal kulturaren berpizkundearen— agerpenerako eta hedapenerako eremuak ziren. Horrela, kantaldiotan euskal herritartasunaren kontzientzia zabaltzen zen, euskara eta euskal kultura etnikoa deitu dugunarekiko oharmena piztuz, eta gizarte modernorako berbalioztatuz (Amezaga, 1994: 203).

Arabaren kantautoreen eragina txikiagoa izan arren, Gorka Knörr edo Patxi Villamor aipa ditzakegu herrialdearen ordezkari gisa. Biak euskaldun berriak ziren, eta beren burua Euskal Kantagintza Berriaren mugimenduan kokatu zuten.

Knörrek lehenengo kontzertua 1971n eman zuen Gasteizen²⁵, eta 1974an *Araba Kantari* diskoa argitaratu zuen; bertan Arabako kanta herrikoiak eta bi abesti propio partekatu zituen. Bi abesti horietan Araba eta Trebiñu ziren mintzagaia. *Araba* izeneko abestian «Oi Araba! Zu ote zare aitaren zazpigarren alaba?» galdera luzatu zuen. Arabako euskalduntasunaren aldarrikapen bat egin nahi zuen, batez ere, bestelako euskaldunen aurrean; bere iritziz: «Arabarrak ginen pelikularen arloteak [...] bazeuden euskaldun asko Urkiolatik harantza [...] kontsideratzen zutena hori beste gauza bat»²⁶.

24. Zalbide, Xabi, «Mendi taldeak: 50 urteko martxa aldapatsuen eskualdeko kronika», *Aiaraldea*, <<https://aiaraldea.eus/komunitatea/Xabi%20Zalbide/1481094060983-mendi-taldeak-50-urteko-martxa-aldapatsuen-eskualdeko-kronika>> (Kontsulta: 2021-01-27).

25. *Berria*, 2021-02-19, <<https://www.berria.eus/albisteak/193842/gorka-knorr-laguogitarista-laguntzaile-bikaina-zen-pertur-harmonia-fina-jartzen-zien-kanteiraquo.htm>> (Kontsulta: 2021-03-06).

26. Elkarrizketa Gorka Knorri, Bartzelona, 2015-07-17.

Urte bat geroago *Nik nahi dudana* LPa kaleratu zuen, berak sortutako abes-
tiekin osatutakoa. Debekuak eduki zituen Gipuzkoan eta Bizkaian jotzeko; halere,
Gipuzkoako kasuan, debekua Benito Lertxundirekin batera arituz saihestu zuen.

Patxi Villamorrek, Gorkaren bideari jarraituz, gitarra hartu eta euskaraz kanta-
tzeari ekin zion. Marianisten eskolan estreinatu zen 1973an eta lau urte geroago
plazaratu zuen bere lehenengo diskoa. Villamorrek gogoratzen duenez, kantaldietako
giroa: «Era una forma de encauzar de forma legal y permitida esa rabia contra el
Franquismo»²⁷.

6. Ekaitza euskal munduan

6.1. Gazte eroak

Eujenio Agirretxe *Zubigileak* Arantzazuko talaiatik euskal mundu zaharraren gain-
beheraz hausnartu zuen: «Ekaitz bortitz bat sortu zen Euskadin. Ekaitzak uholdea
ekarri zuen. Eta uholdeak Elizaren baratza oso murriztua utzi zigun. Belaunaldi
gaztea sekularismo eta politika gogortuaren urek eraman zuten» (Agirretxe, 1995:
90).

«Euskal fededun» binomio banaezina urte gutxitan hausten joan zen, eta
belaunaldi berriak euskal mundu zaharra kolokan jarri zuen. Joxe Azurmendiren
ustez: «Etorri ziren denok dakigun gazte zoro batzuk eta mundu baketsu, dena
txukun-txukun atondu hura, hankaz gora jarri zuten» (Azurmendi, 1998: 9). Bide
batez, dogma zaharrak baztertuak izan ziren:

Fedegabea da [...] belaunaldi berria, borrokan jarraitzen duen artean [...] Bestelako gorritasun batez [...] helduko dio belaunaldi honek orain politikari [...] bizitzaren sentidoari, etikari, gizarte arazoari, euskarari eta literaturari, batasunaren borrokari, larre-kultura baserritarra gainditzeari (Azurmendi, 1998: 33).

Uholdearen ondorioak Araban ere nabaritu ziren. Arestian aipatu dugun bezala,
Arabako euskalgintzaren sorrera elizarekin guztiz lotuta egon zen; hala ere,
apaiztegiak hustuz joan ziren eta euskarazko mezek edukitako zentralitatea galdu
zuten. Izan ere, urte horietan Hego Euskal Herri osoan sekularizazio-prozesu azkar
bat bizi zen, esate baterako, 1972an euskal herritarren %71,3 mezarara joaten zen;
1983an, aldiz, %31,2 besterik ez (Pablo, 2002: 319).

6.2. Batua

Euskalgintzaren barruan eztabaida ugari egon ziren, garrantzitsuena euskararen
batasunaren inguruan. Eztabaida horrek bi munduren arteko talka islatu zuen; izan
ere, gerra aurreko belaunaldiak, oro har EAJrekin lotua, mesfidantzaz ikusi zuen
batasunaren prozesua. Salbuespenak egon ziren, tartean, Koldo Mitxelena, batuaren
aldeko eragile sutsua, bere alderdian babesik aurkitu ez zuena. Batuaren aurkakoek
Ipar Euskal Herritik hartutako «H» hizkia ikurtzat hartu zuten, ikur marxista zela

27. «Patxi Villamor, un pionero de la música vasca», *Radio Vitoria*, 2014-02-24, <<http://www.eitb.eus/es/audios/detalle/2025256/patxi-villamor-pionero-musica-vasca—radio-vitoria/>> (Kontsulta: 2021-01-27).

idatzi ere egin zuten. Pruden Gartziaren arabera, batuaren sorreran ezinbestekoa izan zen: «Bi sektore intelektualen aliantza sendo bat [...], batetik, gazte ezkertiar *gerrillazaleak*, bestetik kristau aurrerakoi kontziliozaleak. Bi indar horien bateratzea da euskara batuaren sorrera esplikatzen duena; nork bere aldetik ez zuen lortuko» (Gartzia, 2018: 58).

Arabako euskalgintzaren belaunaldi berriak arazo handirik gabe onartu zuen hizkuntzaren batasuna. Aitzindariak, *Umandik* eta Izaskun Arruek, aitzitik, ez zuten euskara batua atsegin. Arruek dimisioa aurkeztu zuen Olabide Ikastolan, batua aukeratua izan zenean. Urrestarazuk batasuna arbuiatu ez arren, ez zuen gustuko aukeratutako bidea; bere ustez, erdarakadak alboratuta, euskara batzen joan zitekeen. Hori zela eta, lehenik euskalkiak batu behar ziren: «Izkelgu guzrien batasunaraño eldu baño lenago; izkelgi bakoitzarena da [...] lortu bear dana; noraezuekoa deritzaigu ori, bakoitzean dagoen aberastasunetik ezer galdu eztedin, eta ófela malez-mail orokoferanaño eldu al-izateko» (Urrestarazu, 1977: 294). Era berean, ez zitzaion batere gustatu 1975ean sortutako ikastolak bere ezizena edukitzea, bertan batuaz irakasten zela eta.

6.3. Euskaltzaleen Jainkoaren heriotza

Koldo Zuazoren arabera: «Gainera, eta okerrena dena, hizkuntzaren esparrutik zeharo kanpo kokatu zen eztabaida, eta gizartearen egitura, politika nahiz erlijioa, denetarik nahastu zen» (Zuazo, 2005: 162). Gorka Knörrentzat «esentziaren zaintzaileak zeuden [...] euskaltzaleatasuna, oro har, oso uztartua zegoen federekin. Eta hor, harik eta gizartearen sekularizazioa bizkorra etorri zen arte»²⁸.

Testuinguru horretan, ETaren sorrera erabakigarria izan zen abertzaletasuna zein euskalgintza berrasmatzeko: arraza alboratu eta hizkuntza nazionalitatearen oinarritzat hartu zuen. Idoia Rodriguezen arabera: «Nazioaren muinaren lekualdatze honek, arrazatik hizkuntzara, berebiziko garrantzia du, zeren nazionalismo tradizionalan euskalduna izatez eta odolez (euskaldun jai) baitzen, formulazio berrian euskalduntasuna eskuratu daitekeen bitartean (euskaldundu)» (Rodriguez, 1994: 104-105).

Erljioa ere nahasketa horretan agertu zen eta Rikardo Arregik euskaltzaleen Jainkoaren heriotzaren beharra aldarrikatu zuen. Jainko horrek euskal kulturaren eta kontserbadurismoaren arteko harremana sinbolizatzen zuen; hots, nekazaritza eta erlijioarekin lotutako mundua. Orduko gazte euskaltzaleen pentsamoldetik gero eta urrutiago zegoen mundu hori, horregatik lokarriak hausteko beharra defenditu zuen:

Euskaltzaleatasuna ankaz gora jarri behar baldin badugu, atzera begiratu erazitzen ziguten lokarriak hautsi behar ditugu eta lokarri horiekin loturik erabili genuen Jainkoa ere hautsi behar dugu. Eta hontan, fedegabeak badira ere, euskal gizonaren alde, bere liberazioaren alde, burrukan dabilzenekin bat jokatu behar dugu (Arregi, 1971, 129).

28. Elkarrizketa Gorka Knörri, Bartzelona, 2015-07-17.

Eusebio Osak, bere adiskideari jarraituz, ikastolen Jainkoa hil behar zela defenditu zuen, hots, euskararen irakaskuntza eta fedea bereizi behar ziren. Apaiza izanik ere, erlijioa ikastoletatik kanpo egon behar zela defendatzeagatik kanporatua izan zen Olabidetik. Horretaz gainera, pedagogia berritzaile bat proposatu eta neutraltasuna errefusatu zuen. Euskara «mantxatu» bat sustatu nahi zuen, gizarte-arazoekin lotuta: «Uste dut, orain beste mantxa batzuei zaiela beldur gehiago, gizarte klase baten aldetik behintzat. Kontradizioz eta zapalketaz beteriko Herri honetan, euskara sakratua mantxarrik gabeko neutralitatearen erreinuan erein nahi da» (Osa, 1971).

7. Etorkizuneko oinarriak

Arabako euskal mundu zaharra, Aramaioko salbuespena kenduta, Legutioko urtegiaren uren azpian geratu zen. Euskal mundu berria, aldiz, Gasteiz eta Audio erdigunetzat hartuta, elizaren babesetik aldentuz joan zen, eta aurki herrialde osora zabaltzeko gaitasuna eduki zuen. Orobat, atzera begiratu ordez, euskarak baieztatu zuen etorkizuna zuela gizarte moderno eta industrial batean.

Sekularizazioak mentalitateak aldatu zituen, eta «euskaldun fededun» binomioa betirako apurtu zuen. Hori dela eta, 1970eko hamarkadatik aurrera kantagintza berriak sustatuko kantaldiak izan ziren euskaltzaleen topaguneak, euskarazko mezak izan beharrean.

Finean, Arabako euskalgintzaren bilakaera gainontzeko herrialdeetako mugimenduarekin guztiz lotuta egon zen. Desberdintasun nagusia zen euskararen egoera beste lurraldeetan baino agonikoagoa zela, gainbeherak geldiezina baitzirudien. Arabako euskalgintzaren arazoa ez zen euskara mantentzea, berreuskalduntzearen bidea hastea baizik. Lan horretan ezinbestekoa izan zen Arabako euskaldun berrien eta bestelako herrialdeetatik etorritako euskaltzaleen arteko aliantza. Bukatzeko, nabarmentzekoa izan zen Foru Aldundiak hartutako bidea, aurrekaria izango zena instituzioen eta euskal kulturaren arteko harremana bultzatzeko.

Ezinezkoa da urte ilunetan euskalgintzak lortutako fruituak neurtzea, hala ere, Araba berreuskalduntzeko oinarriak finkatu zirela baieztatu dezakegu. Euskara garai berrietara moldaturik, euskal kultura hiritarra eta modernoa garatu zen. Egia da gutxiengo batek euskara ikasteari ekin ziola, alabaina, Arabako gizartearen eremu zabaletan euskararen irudia erabat aldatu zen; zegoeneko ez zen iraganeko arrasto bat, etorkizuneko tresna bat baizik.

Koldo Zuazoren iritziz: «...1960tik honako urteotan egin da euskararen Iraultza Nagusia, eta hain luzaroan Euskararen Herriari bizkarra erakutsita ibili den Araba eta Euskararen Herri horri begira dabil orain» (Zuazo, 1999: 43). Esan dezakegu euskara modu batean edo bestean beti lotuta egon dela Arabako identitatearekin, baina ordura arte harremana sinbolikoa besterik ez zen. Aurrerantzean, ordea, euskararen biziberritzea praktikan jarri zen.

8. Bibliografia

- AA (2005): *Euskararen erabilera eta transmisioa. Olabide ikastolako ikasle ohien adibidea*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, <<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/euskararen-erabilera-eta-transmisioa-olabide-ikastolako-vitoria-gasteiz-ikasle-ohien-adibidea-2004ko-iraila-uso-y-transmision-del-euskera-de-los-antiguos-alumnos-de-la-ikastola-olabide-vitoria-gasteiz-septiembre-2004/>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- AA (2007): *Recuperación de la memoria colectiva*, Amalur Fundazioa, Audio.
- Agirretxe, Eujenio (1995): *Aldi hartan eta Arantzazuren inguruan*, EFA Frantziskotar Argitaletxea, Oñati.
- Amestoy, Itziar eta Aguraingo Euskalgintza (2010): *Euskararen bidea Agurainen. Iragana beltz, orain amets, bihar baietz*, Arabera, Gasteiz.
- Amezaga, Josu (1994): *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, <http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Josu_Amezaga_TESIA.pdf> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Amo, Ion Andoni del (2016): *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskal Herria*, Txalaparta, Tafalla.
- Anaut, Dabid (2013): *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*, Euskal Memoria, Andoain.
- Apraiz, Odon (1976): *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria (1850-1950)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Arregi, Rikardo (1971): «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu», *Jakin Sorta*, 3, 114-132, <<https://www.jakin.eus/show/56aac5d16338b62437821b9872128d1b30a93a85>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Azurmendi, Joxe (1998): *Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz*, Luma, Zarautz.
- Colomines, Agustí (2005): «La deconstrucción de la memoria. El argumento perverso sobre la represión franquista», in Jose Ramón Resina eta Ulrich Winter, (arg.), *Casa encantada: lugares de la memoria en la España constitucional (1978-2004)*, Veuvert-Iberoamericana, Madril, 207-221.
- Egiguren, Joseba (1997): *Laudio Ikastola, 25 urte euskal hezkuntza bultzatzen*, Audio Ikastola, Audio.
- Elustondo, Miel Anjel (2011): «Arabako euskara eta herrigintza joan deneko 25 urtean», *Euskera*, 56, 577-588, <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/euskera_2011_3.pdf> (Kontsulta: 2021-01-27).
- , (2014): *Hego haizea dabil, Olabide ikastolaren historia bizia Gasteizen (1963-2013)*, Olabide Ikastola, Gasteiz.
- , (2018): *Izaskun Arrueren urratsen atzetik*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Fernandez, Idoia (1994): *Oroimenaren hitza, Ikastolaren historia 1960-1975*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, <<https://www.buruxkak.eus/liburua/oroimenaren-hitza-ikastolen-historia-1960-1975/1991>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Gartzia, Pruden (2018): «*San Ignazioaren martxa*-ren aroa. Zirriborroa euskara batuaren historia intelektualaz», *Jakin*, 255, 44-63.
- Hernandez Abaitua, Mikel (2010): *Azukre xehea, gatz larria*, Alberdania, Irun.
- Herran, Fermin (1879): *Estudios*, Imprenta de la viuda de Iturbe e hijos, Gasteiz, <<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/applet/libros/JPG//007967/007967.pdf>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Iza, Iban (2010): *Ikastola mugimendua. Dabilen herria*, Euskaltzaindia, Bilbo, <http://euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/74646.pdf> (Kontsulta: 2021-01-27).

- López Adan, Ana Rosa (2013): *Peli Lopez Presa. Garai zailletako euskaltzale gasteiztarra (1916-1992)*, Bidegileak, Eusko Jauriaritza, Gasteiz, <<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/Peli%20Lopez.pdf>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Mangana, David (2014): *IKASBIDEA Ikastola, 40 urte, hamaika irakaspen*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Merino, Aketza (2018): «Euskararen galera Aiaraldean (XVIII-XX): informazio-iturri eta datu berriak», *Kondaira*, 18, 1-30, <<http://www.kondaira.eus/article/view/184>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Osa, Eusebio (1971): «Euskara «mantxatua» behar dogu», *Anaitasuna*, 223, <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/anaitasuna/html/223.html#2397> (Kontsulta: 2021-01-27).
- , (1972): «Ikastola eta erlijioa», *Jakin Sorta*, 6, 185-201, <<https://www.jakin.eus/show/5d3599295ac3af3dea59021ff775e9dfe22e13f3>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- , (1975): *Dialektikaz eta kulturaz*, Kriselu, Donostia.
- Pablo, Santiago de (2002): «La Iglesia», in Santiago de Pablo eta Jose Luis de la Granja, *Historia del País Vasco de Navarra en el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 299-326.
- Rincon, Aintzane eta Anzizar, Arantza (2014): *Ametsak egi bihurtuz. San Nikolas ikastolako lehen andereñoak (1963-1969)*, Getxoko Udala, Getxo, <http://www.liburuklik.euskadi.eus//applet/libros/JPG/fs04/GETXO_AMETSAK_EGI_BIHURTUZ/GETXO_AMETSAK_EGI_BIHURTUZ.pdf> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Sudupe, Pako (2013): *Eusebio Osa. Belaunaldi baten lekukoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Uribarren, Patxi (1972): «Aramaionako euskeraren berezitasunak, euskal idazleak, eta euskeraren egoera eta etorrera», *Euskera*, 17, 157-167, <<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/51933.pdf>> (Kontsulta 2021-01-27).
- , (2010): «Izan zirelako gara, eta garelako izango dira», *Euskera*, 55, 1, 61-88, <<http://www.euskaltzaindia.fr/dok/euskera/75309.pdf>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Urrestarazu, Andoni (1977): *Euzkeraren batasuneruntz*, Tolosa.
- Velez de Mendizabal, Jose María (2008): *Sabin Salaberri Urzelai*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, <<http://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/sabin-salaberri-urzelai/art-20271/>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- , (2012): «Euskal Pizkundea Araban», *RIEV*, 57, 2, 396-430, <<http://www.eusko-ikaskuntza.eus/argitalpenak/euskal-pizkundea-araban/art-21949/>> (Kontsulta: 2021-01-27).
- Yrizar, Pedro de (1973): «Los dialectos de y variedades de la lengua vasca», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, XXIX, 3-78.
- Zalbide, Mikel (2007): «Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia», *Euskera*, 52, 3, 877-1008, <<https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/71459.pdf>> (Kontsulta: 2021-03-05).
- Zuazo, Koldo (1999): *Arabarrak Euskararen Herrian*, Arabera, Gasteiz.
- , (2005): *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.